PRENTSA OHARRA

Bilbon elkartuko dira 31 herrialdetako 100 neurokirurgialari Europako Neurokirurgia Sarearen Bileran:

OSAKIDETZAK XII. 'European Low Grade Glioma Network Bilbao 2017' BILERA SUSTATZEN DU

- Bilera Europa mailako erreferentea da gradu baxuko glioma izenekoan. Garuneko eremu elokuenteei eragiten dien tumore-mota bat da, eta hizkuntzan eta mugimenduan nahasmenduak eragiten ditu. Horrelakoetan ohikoa da kirurgia pazientea esna dagoela izeneko teknika erabiltzea.

-Topaketak kudeaketa jasangarriaren ereduaren alde egin du: babesletza eta laguntza mugatu ditu, bileraren arreta izaera zientifikoan jarri du, eta doako izen-ematea eta haren edukiak *streaming* bidez jasotzeko aukera du.

Ekainaren 1etik 3ra, 31 herrialdetatik etorritako 100 neurokirurgialari izango ditugu Bilbon. Tartean, Osakidetzako neurokirurgiako zerbitzu guztietako ordezkariak ere izango dira. Mundu guztiko neurokirurgialari ospetsuek gradu baxuko gliomarekin lotutako alderdi guztiak aztertuko dituzte hainbat ikuspuntutatik. 12 European Low Grade Glioma Network Bilbao 2017 topaketaren inaugurazio ofiziala ekainaren 2an (ostirala) izango da, 10:30ean, Bilboko hirigune historikoko egoitzan (BBVA eraikina - San Nikolas plaza 4). Bertan izango da, Osasun Sailaren ordezkari bezala, Neurokirurgialarien Europako Sare honen 12. bileraren antolakuntzan ere parte hartu zuen Iñaki Berraondo sailburuordea. Berarekin batera ekitaldira bertaratuko dira ere Gotzone Sagardui, Bilboko Udaleko Alkatetza, Garapen Ekonomikoa eta Gobernu Ona koordinatzeko zinegotzia; Amaia Esquisabel, Hezkuntza Saileko Ikerketako zuzendaria; eta Mª Luz del Valle, BioCruceseko zuzendaria.

Gradu baxuko glioma* eta *kirurgia pazientea esna dagoela

European Low grade Glioma Network edo *Gradu baxuko gliomaren Europako Sarea* (ELGGN) gaixotasun konplexu horren maneiua eta tratamendua ardatz duten neurokirurgiako espezialisten talde aktibo bat da. Tumore-mota bat da glioma, eta ebakuntza baten beharra duten pazienteengan antzemandako tumoreen erdia osatzen du.

Gradu baxuko gliomak, bere kokalekua eta morfologia dela eta, berezko zenbait ezaugarri ditu ikuspegi medikotik. Lehenik eta behin, ebakuntzetan, *kirurgia pazientea esna dagoela* izeneko teknika erabili behar izaten da: pazientea kontziente egoten da ebakuntza osoan zehar, ahalik eta funtzio neurologiko motor gehienak zaintzeko edo aurreko trebetasun bereziren bat kontserbatzeko (musika-interpretazioa, ezagutza espezifikoak, hizkuntzak...)

Gainera, gliomaren garun barruko kokalekuaren arabera, pazientea, tumorea handitu dela eta, hizkuntzarekin edo kalkuluarekin arazoak izatera eta bestelako nahasmendu kognitiboak pairatzera irits daiteke. Gaixoak irakurtzeko gaitasuna gal dezake, letrak edo idatzitako hitzak antzemateko zailtasuna dela eta. Beste batzuetan, galera oso zehatza eta espezifikoa gertatzen da, adibidez, pertsonak ezagutzeko eta haien izenak gogoratzeko ezintasuna. Paziente elebidunen beste kasuren batean, bigarren hizkuntza ez ahazteko ahalegina egin da, glioma kentzeari lehen aipatutako *kirurgia pazientea esna dagoela* izeneko teknikaren bidez ekinik. Pazientea kontziente dago ebakuntza osoan, eta test batzuk eta egiaztapen batzuk egiten zaizkio, tumorea erauzten zaion bitartean haren erreakzioak zein diren *in situ* baloratzeko.

Kudeaketa jasangarria

Bilerak kudeaketa jasangarriaren ereduari jarraituko dio, hau da, bilera eta jardunaldi medikoak haien izaera teknikoari bakarrik lotuko zaizkio, eta eskuarki ekitaldi-mota honekin lotutako alderdi komertzialetatik urrunduko dira. Horretarako, erakundeak antolatu duen topaketa-mota honetan, bertaratuek ez dute izen-ematea ordaindu beharko, eta topaketa beraren edukia *streaming* bidez zabalduko da, bertaratu ezin direnentzat.

Hizlarien kasuan, horiek ere ez dute inolako pizgarri ekonomikorik jasoko parte hartzeagatik. Hala ere, alderdi teknikoetan enpresek laguntzea onartu da, adibidez,

ikus-entzunezko atalean, alderdi sozialean (topaketaren egoitza), ludikoan (Guggenheimera bisita) edo webgunea egitean eta *streaming* zerbitzua bideratzean.

Osakidetzako Neurokirurgiako zerbitzu guztiek parte hartu dute lantalde horretan.

Disekzio-ikastaroa

Europako Neurokirurgia Sarearen Topaketa ekainaren 1ean hasiko da (osteguna). Garuneko substantzia zuriaren disekzioari buruzko ikastaro aurreratu batekin hasiko da, Leioako Campuseko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean. Ikastaro hori oinarrizko disekzioan jada trebatutako 10 neurokirurgialariri zuzenduta dago eta helburua alderdi teknikoetan trebatzea eta zuntzak disekzionatzen trebezia lortzea da, espezialistek garun barruko tumoreei baldintza hobeagoan ekin diezaioten.

Ikastaroa fakultateko dekano berriak inauguratuko du, Joseba Pinedak.

Gai ugari

Ekainaren 2an eta 3an, ostiralean eta larunbatean, topaketa Bilboko egoitzan izango da (BBVA eraikina - San Nikolas plaza 4). Han esperientziak partekatzeko eta gradu baxuko gliomarekin harremanetan dauden gai askori buruz eztabaidatzeko aukera izango da. Aukeratutako gaiak askotarikoak izango dira, adibidez, gradu baxuko gliomaren (Low Grade Glioma-LGG) detekzio goiztiarra, eta hura erauztearen ondorioak edo garunaren plastikotasuna, hizkuntza eta neuro-errehabilitazioa. Eta ezin ditugu ahaztu beste gai hauek: gliomen ebaluazio erradiologikoa edo ikerketari dagozkion alderdiak, adibidez, faktore iragarleak.

Streaminga eta jarraipena Sareetan

Topaketa uneoro jarraitu ahal izango du, *streaming* bidez, interesa duen orok. Brain Tumor Fundationeko lehendakariak parte hartuko du New Yorketik bideokonferentzia bidez.

Ekitaldiko antolatzaileen kezka handienetako bat ezagutza modu librean eta jasangarrian zabaltzea da. Horretarako, hitzaldiak Youtuben ikusi ahal izango dira, mugarik gabe.

Gainera, ekitaldiarekin lotuta dagoen guztia webgunearen bidez eta sare sozialen bidez (adibidez, Facebook eta Youtube) jarraitu ahal izango da

www.lowgradegliomabilbao.com

https://www.youtube.com/channel/UC1w21rYH5cBeaVFQQ5sprVw

https://www.facebook.com/European-Low-Grade-Glioma-Network-1704093246285995/

Informazio gehiago:

Komunikazio Bulegoa 946006428

Nazioarteko hizlariak

1 Hugues Duffau – MONTPELLIER (Frantzia)

Neurokirurgialari frantsesa (1966-8-8)

Montpellierreko Guy de Chauliac ospitaleko Neurokirurgia Ataleko zuzendaria

Frantziako Osasuneko eta Ikerketako Institutu Nazionaleko Montpellierreko Ikerketa Taldeko zuzendaria

Haren ikerketa-ildoak garunaren plastikotasuna eta konektagarritasuna ditu ardatz, bereziki hizkuntzari dagokionez.

Eskuarki, garunaren ebakuntzak pazientea kontziente dagoela egiten ditu, eta horrek pertsona bakoitzaren berariazko funtzioak hobeto ezagutzeko aukera ematen dio

2 NADER SANAI – PHOENIX (Arizona, AEB)

Garuneko tumoreetan aditua den neurokirurgialaria.

Barrow Brain Tumor Research Centerreko (BBTRC) zuzendaria.

Ikertzaile gisa, haren ildo nagusia neuroonkologiako laborategia da zelula amekin. AEBetan NIH R01 beka bat duen ikertzaile bakarretako bat da

3 PHILIP E. STIEG – NEW YORK (AEB)

Weill Cornell Brain and Spine Centerreko

zuzendaria da New Yorken. AEBetako Garuneko

Tumoreen Fundazioko lehendakaria

NOTA DE PRENSA

100 neurocirujanos de 31 países se dan cita en Bilbao en la Reunión de la Red Europea de Neurocirugía:

OSAKIDETZA PROMUEVE EL "12 European Low Grade Glioma Network Bilbao 2017"

-**La reunión es el referente a nivel europeo en el denominado *Glioma de Bajo Grado*, un tipo de tumor que afecta a áreas elocuentes del cerebro, que provoca trastornos en el lenguaje y en el movimiento, y en el que es habitual el uso de la denominada *Cirugía de Paciente Despierto*.**

-El encuentro ha optado por un modelo de gestión sostenible, que limita el patrocinio y la esponsorización centra la reunión en el carácter científico, y cuenta con inscripción gratuita y emisión en streaming de los contenidos del mismo.

Entre el 1 y 3 de junio, Bilbao acoge a 100 neurocirujanos de 31 países (entre ellos, integrantes de todos los servicios de Neurocirugía de Osakidetza). Prestigiosos neurocirujanos de todo el mundo analizarán bajo diferentes puntos de vista todo lo relacionado con el Glioma de Bajo Grado. La inauguración oficial del ***12 European Low Grade Glioma Network Bilbao 2017*** tendrá lugar este viernes 2 de junio a las 10:30h en la sede del Casco Histórico de Bilbao (Edificio BBVA-Plaza San Nicolas nº4). Contará con la presencia Del Viceconsejero Iñaki Berraondo por parte del Departamento de Salud, que además ha colaborado en la organización de esta 12ª Reunión de la Red Europea de Neurocirujanos, así como la presencia de Gotzone Sagardui, Concejala Coordinadora de Alcadía, Desarrollo Económico y Buen Gobierno, Amaia Esquisabel, Directora de Investigación del Departamento de Educación y Mª Luz del Valle, Directora de BioCruces.

Glioma de Bajo Grado* y *Cirugía de paciente Despierto

El European Low grade Glioma Network (ELGGN) o *Red Europea de Glioma de Bajo Grado*, es un activo grupo de especialistas en neurocirugía centrados en el manejo y tratamiento de esta compleja enfermedad. Se trata de un tipo de tumor, el Glioma, que constituye aproximadamente la mitad de los tumores detectados en pacientes que deben someterse a cirugía.

El *Glioma de Bajo Grado*, debido a su ubicación y morfología presenta desde la perspectiva médica una serie de características propias, ya que se trata de intervenciones que suelen requerir de la técnica de *Cirugía de Paciente Despierto*, en las que el paciente permanece consciente en todo momento durante la intervención con el objetivo de preservar el máximo de sus funciones neurológicas motoras o bien, conservar alguna habilidad especial previa (interpretación musical, conocimientos específicos, idiomas…)

Además, debido al área del cerebro donde se desarrolla el Glioma, es relativamente frecuente enfrentarse a situaciones donde los pacientes, debido al crecimiento del tumor, pueden llegar a sufrir problemas relacionados con el lenguaje, el cálculo y otras alteraciones cognitivas. Donde el enfermo, pierde la capacidad de leer debido a la dificultad para reconocer las letras o las palabras escritas. En otros casos, se produce una pérdida muy concreta y específica, como puede ser la incapacidad para reconocer y vincular personas a sus nombres propios. También se ha dado el caso de pacientes bilingües a los que se ha intentado preservar el segundo idioma mediante el abordaje del *Glioma* desde la técnica ya mencionada, de *Cirugía de Paciente Despierto* en la que el paciente permanece consciente durante toda la operación y se le realizan una serie de test y comprobaciones para valorar, *in situ,* sus reacciones mientras se extirpa el tumor.

Gestión sostenible

La reunión pretende seguir un modelo de gestión sostenible, que trata de vincular las reuniones y jornadas médicas únicamente a su carácter científico y alejarse de los aspectos comerciales que comúnmente van asociados a este tipo de eventos. Para ello, la organización ha propuesto un tipo encuentro en el que los asistentes no pagan ningún tipo de inscripción y se produce la difusión de los contenidos del mismo a través de streaming para aquellos que no puedan desplazarse..

En el caso de los ponentes, éstos tampoco reciben ningún tipo de incentivo económico por su participación. Si se ha admitido, en cambio la esponsorización a través de empresas de aspectos técnicos, como el apartado audiovisual, el aspecto social (sede de encuentro), lúdico (visita a Guggenheim) o la elaboración de la página web, y el servicio de *streaming*.

En este grupo de trabajo participan todos los servicios de Neurocirugía de Osakidetza.

Curso de disección

El encuentro de la Red Europea de Neurocirugía ha comenzado este jueves, 1 de junio, con un Curso Avanzado de Disección de sustancia blanca cerebral en la Facultad de Medicina y Enfermería del Campus de Leioa en la Universidad del País Vasco. Este curso está dirigido a 10 neurocirujanos ya entrenados en disección básica y tiene por objetivo recibir formación sobre aspectos técnicos y adquirir destreza en la disección de fibras que permitan a los especialistas abordar en mejores condiciones los tumores en el interior del cerebro.

Este curso será inaugurado por el nuevo decano de la facultad el profesor Joseba Pineda

Variada temática

Durante los días 2 y 3 de junio, viernes y sábado, se celebrará el encuentro en la sede de Bilbao (Fundación BBVA. Plaza de San Nicolás, 4) donde habrá oportunidad de compartir experiencias y debatir acerca de distintos materias relacionadas con el Glioma de Bajo Grado. Los temas escogidos para la ocasión comprenden desde la detección temprana del Glioma de Bajo Grado (Low Grade Glioma-LGG) y las implicaciones de su extirpación, hasta el debate sobre la plasticidad cerebral, el lenguaje y la neuro-rehabilitación. Sin olvidar temas como la evaluación radiológica de los Gliomas o aspectos de investigación como los marcadores biológicos como factores de pronóstico.

Streaming y seguimiento en Redes

El Encuentro podrá ser seguido en todo momento en *streaming* por todos aquellos interesados. Desde Nueva York participará el presidente de la Brain Tumor Fundation por medio de video conferencia.

Una de la mayores preocupaciones de los organizadores del evento es la difusión de conocimiento de manera libre y sostenible, para lo cual se podrán ver las ponencias en Youtube de manera indefinida.

Además, todo lo relacionado con el evento podrá ser seguido a través de la página web y redes sociales como Facebook y Youtube

www.lowgradegliomabilbao.com

https://www.youtube.com/channel/UC1w21rYH5cBeaVFQQ5sprVw

https://www.facebook.com/European-Low-Grade-Glioma-Network-1704093246285995/

Para más información:

Gabinete de Comunicación 946006428

Ponentes Internacionales:

Hugues Duffau _MONTPELLIER (Francia)

Neurocirujano francés (8.8.1966)

Director del Dpto. de Neurocirugía del Hospital Guy de Chauliac de Montpellier

Director del Grupo de Investigación de Montpellier perteneciente al Instituto Nacional de Salud e Investigación de Francia

Su línea de investigación se centra en la plasticidad y conectividad cerebral, con especial interés en el lenguaje.

Habitualmente realiza las intervenciones en el cerebro con el paciente consciente lo que le permite conocer mejor las funciones específicas en cada persona

NADER SANAI – PHOENIX (Arizona USA)

Neurocirujano experto en tumores cerebrales.

Director del Barrow Brain Tumor Research Center (BBTRC).

Como investigador su línea principal es el laboratorio de neurooncología con células madre. Es uno de los pocos investigadores con una beca NIH R01 en EEUU

PHILIP E. STIEG – NUEVA YORK (USA)

Director del Weill Cornell Brain and Spine Center

en Nueva York. Presidente de la Fundación de

Tumores Cerebrales de EEUU